

PATXI RUIZ EUSKAL PRESO POLITIKOAREN EGOERAREN HARIRA

Ohar honen bidez, SORTUK bere kezka azaldu nahi du Patxi Ruiz euskal preso politikoak bizi duen egoerarengatik.

- SORTUren ustez, euskal preso politikoei aplikatzen zaien salbuespeneko politika jarraituak eragin zuzena du Patxi Ruiz pairatzen ari den egoeran. Indarrean dagoen espetxe politikak euskal presoen deuseztatze pertsonal eta politikoa bilatzen du. Makinaria errepresibo kalkulatu bat aplikatzen da presoak pertsona gisa birrintzeko, lehenik, eta bere konbikzio politikoetan amore eman dezan, ondoren. Horretara zuzenduta daude, esaterako, sistematikoki aplikatzen den 1. gradua, bakartzea eta urruntzea, baita espetxe administrazioaren ohiko jarrera bortitza ere.

- Ankerra da oso euskal presoek pairatzen duten espetxealdia eta ankerra da haren eragina, maila fisikoan nahiz psikologikoan. Halako baldintza gogorretan bizitzera behartuta dagoen presoak urte luzetan pilatu duen tentsioa edozein unetan lehertu daiteke eta, zenbaitetan, muturreko erabakiak, are erabaki desesperatuak, hartzera bultzatu dezake presoak.

- SORTUK aipatu testuinguruan kokatzen du Patxi Ruiz pairatzen ari den egoera eta irakurketa horren arabera jokatzeko ari da lehen unetik. Patxiaren egoerari arrazoizko konponbide bat eman behar zaio, beranduegi izan baino lehen: bere bizitza eta osasuna zainduz, batetik, eta segurtasunean sentitu dadin behar diren neurriak hartuz eta behar duen laguntza emanez, bestetik.

- Urgentziazko neurri hauekin batera, arazoaren jatorrian dagoen salbuespeneko espetxe politika indargabetu eta presoak etxeratzeko prozesuari ekin behar zaio behingoz. Euskal Herrian borroka luze batean murgilduak gaude, askoren arteko dinamika zabalen bidez, euskal preso politikoentzat soluziobiderako aukera irekitzeko saiakeran. SORTUK lan horretan jarraitzeko konpromisoan berresten da.

- SORTUK argi du konponbidearen ardura ezin dela Patxiaren bizkarrean utzi. Auzi hau eta, oro har, euskal preso politikoen afera konpontzeko eta presoak etxeratzeko egiteko nagusia kalean dago. Gu guztion ardura da.

- SORTUK ez du babesten eta ez du babestuko Patxiaren bizitza eta bere egoera bideratzea lehenesten ez dituen inolako ekimenik, are eta gutxiago, halakoek, Patxi irteerarik gabeko egoera batera bultzatu dezaketenean. Zentzu horretan, SORTUK egoeraren irakurketa zintzoa egiteko eta arduraz jokatzeko eskatzen dio Patxiaren ingurune politikoari eta, aipatu

irizpideen baitan, ezker abertzalearen baliabide guztiak eskaintzen dizkio berriz ere, Patxi lagundu eta bere egoera bideratzen ahalegintzeko.

- Edonola ere, Espainiako Gobernuak du Patxi Ruiz-en egoeraren ardura. Espainiako Gobernuari dagokio Patxiren bizitza bermatzea. SORTUK dei egiten dio bere esku dauden neurri guztiak har ditzan horretarako, gehiago itxaron gabe, Patxi egoera kritikoan sartu baino lehen.

- Bukatzeko, SORTUK egoera konpontzea eta ahalik eta azkarren berreskuratzea opa dio Patxi Ruiz-i. Era berean, une zail hauetan, Patxiren senide eta lagunei bere elkartasuna helarazi nahi die. Eta, oro har, euskal preso politiko guztiei eta beren hurkoei besarkada bero bana bidali nahi die, azken hilabeteotan bizitzen ari diren egoera zailaren aurrean.

Denak etxean eta bizirik nahi ditugu!

SORTU
2020-05-20

ANTE LA SITUACIÓN DEL PRESO POLÍTICO VASCO PATXI RUIZ

Mediante esta nota, SORTU manifiesta su preocupación por la situación del preso político vasco Patxi Ruiz.

- SORTU considera que la situación que padece Patxi Ruiz es consecuencia directa de la política continuada de excepción que se aplica a los y las presas políticas vascas. Una política penitenciaria vigente que busca la eliminación personal y política de las y los presos vascos. De hecho, primero se aplica una calculada maquinaria represiva con el fin de destrozarse al preso como persona para que después reniegue de sus convicciones políticas. Junto al trato de carácter violento habitualmente empleado por la administración de justicia, la aplicación sistemática del primer grado, el aislamiento y el alejamiento son medidas que buscan ese fin.
- La situación que sufren las y los prisioneros vascos es absolutamente inhumana, con terribles consecuencias tanto a nivel físico como psicológico. La tensión acumulada durante años por un preso obligado a vivir en condiciones tan duras puede estallar en cualquier momento y, en ocasiones, ello puede inducirle a tomar decisiones extremas, incluso desesperadas.
- SORTU ubica en este contexto la situación que padece Patxi Ruiz y desde el primer momento está actuando en base a esa lectura. Hay que dar una solución razonable a la situación de Patxi antes de que sea demasiado tarde, por un lado a través del cuidado de su vida y su salud, y por otra a través de las medidas necesarias que permitan que se sienta seguro y prestándole la ayuda que necesita.
- Junto a estas medidas urgentes, debe aplicarse de una vez la derogación de la política penitenciaria excepcional que está en el origen del problema y de un proceso de excarcelación de presas y presos. En Euskal Herria, tras la puesta en marcha de amplias dinámicas entre diferentes sectores, nos encontramos inmersas en una larga lucha que pretende abrir una oportunidad de solución para los y las presas políticas vascas. SORTU se reafirma en su compromiso de seguir en esa tarea.
- SORTU tiene claro que la responsabilidad de la solución no debe recaer sobre Patxi. La principal tarea para resolver este asunto y el del conjunto de los presos y presas políticos, así como su vuelta a casa, está en la calle. Es responsabilidad de todas nosotras.
- SORTU no apoya ni apoyará ninguna iniciativa que no tenga como prioridad la salvaguarda de la vida de Patxi así como la resolución de su situación, y menos aún cuando se pueda empujar al preso a una situación sin salida. En este sentido, SORTU insta al entorno político de Patxi a hacer una lectura sincera de la situación y a actuar con responsabilidad. Con

esos parámetros SORTU le ofrece de nuevo todos los recursos de la izquierda abertzale para ayudar a Patxi y tratar de canalizar su situación.

- En cualquier caso, el responsable de la situación de Patxi Ruiz es el Gobierno español, que es a quien le corresponde velar por su vida. SORTU insta al Gobierno a que tome todas las medidas que estén en su mano para ello, sin esperar más, antes de que Patxi entre en una situación crítica.
- Finalmente, SORTU desea que la situación de Patxi Ruiz se resuelva lo antes posible y se recupere cuanto antes. Asimismo, transmite su solidaridad a familiares y amigos de Patxi en estos difíciles momentos. Además, en esta difícil situación que vive el conjunto de presos y presas políticas vascas y las personas allegadas, envía un abrazo fraternal a todas y cada una de ellas.

¡Los queremos a todos en casa!

¡Las queremos vivas!

SORTU
20-05-2020